

BIR



BIR



BIRNATURALIZATU

baketik

Idea eta sorkuntza: **Baketik**
Testuaren egilea: **Elena Arambarri**
Itzulpena: **Xabier Alkiza**
2023



HITZAURREA

JATORRIA

Proiektu honek, batetik, hezkuntza formaleko zein ez-formaleko eragileek haur eta nerabeentzako material eta prestakuntza-prozesu erakargarriak izateko eskaerari erantzuten dio, gazteenek 2030 Agenda ez soilik ezagutzeko, baizik eta aniztasunaren eta jasangarritasunaren balio positibo aberasgarriak beregana ditzaten. Azkenik, baina ez garrantzi gutxiagorekin, proiektuak gaitasun kritikoa sustatzearen aldeko apustua egiten du, bai eta haurtzaro eta gaztaro kultu, sortzaile eta bidezkoago baten alde, bizikidetzat bultzatzeko metodologia sortzaileak erabiliz.

Baketik-en uste dugu, sormenaren ahalmena tresna berritzaile itzela izan daitekeela elkarbizitzarako.

GAIAREN ARABERA

Antzezlan hau 2030eko Agendaren jarioa da (Agendatik atera da). Garapen jasangarrirako Agenda hau pertsonentzat eta planetarentzat diren 17 helburuk osatua da. Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) ekintzarako dei unibertsala dira, pobrezia desagerrarazteko, planeta babesteko eta mundu osoko pertsonen bizitzak eta ikusmoldeak hobetzeko. 2015ean, Nazio Batuetako estatu kide guztiek 17 helburu onartu zituzten, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren atal gisa, eta bertan helburuak 15 urtetan lortzeko plan bat ezartzen da.

Antzezlan honen bidez, garapen jasangarriko helburu hauek lantzen dira berariaz:

- GJH 1. POBREZIAREN AMAIERA. Pobreziari, bere forma orotan eta mundu osoan amaiera ematea.
- GJH 4. KALITATEZKO HEZKUNTZA. Kalitateko hezkuntza inklusiboa eta bidezkoa bermatzea eta guztiontzako etengabeko ikaskuntzarako aukerak sustatzea.
- GJH 5. GENERO-BERDINTASUNA. Generoen arteko berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahaldundutzea.
- GJH 10. DESBERDINTASUNEN MURRIZKETA. Desberdintasunak murriztea herrialdeen artean eta barruan.
- GJH 11. HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK. Hiriak eta giza egonlekuak inklusiboak, seguruak, erresiliente eta jasangarriak izatea.
- GJH 12. KONTSUMO ARDURATSUA. Kontsumo eta ekoizpen modu jasangarriak bermatzea.

- GJH 13. KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO BORROKA. Klima-aldaketari eta haren ondorioei aurre egiteko premiazko neurriak hartzea.
- GJH 14. ITSASPEKO BIZITZA. Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak modu jasankorrean mantendu eta erabiltzea garapen jasankorrerako.
- GJH 15. LURREKO EKOSISTEMEN BIZITZA. Basoak modu jasangarrian kudeatzea, desertifikazioaren aurka borrokatzea, lurren narriadura gelditu eta alderantzikatzea eta bioaniztasunaren galera gelditzea.
- GJH 16. BAKEA ETA JUSTIZIA. Gizarte baketsu, inklusibo eta bidezkoak sustatzea.
- GJH 16. HELBURUAK LORTZEKO ITUNAK. Garapen Jasangarriko Munduko Ituna biziberritzea.

PROPOSAMENAREN HELBURUA

Antzezlanaren sortzeko proposamen honen bitartez, kulturaren eta gizarte-kontzientziaren arteko zubiak sustatu nahi ditugu. Antzezlanaren berriazko helburuak honakoak dira:

- Balioetan oinarritutako hezkuntza eta herritartasun kritikoa sustatzea (GJH 4)
- 2030 agendaren bost ardatzei buruzko kontzientzia garatzea (Planeta, Pertsonak, Oparotasuna, Bakea eta Itunak), antzerki-lengoaia baten bidez eta eskolarako dibulgazio eta pedagogia material gisa.
- Diskriminazioak identifikatu eta horien aurka borrokatzeko gai izango den kontzientzia kritikoa bultzatzea, eta bai eta aniztasuna, gizarteratzea eta bizikidetzaren sustatzeko (GJH 10. eta 16.)
- Gazteen eta haurren parte-hartze eraginkor eta eraldatzailea bultzatzea (GJH 10.)
- Eragile gipuzkoarren arteko itunak indartzea (GJH 17.)
- Kultura eta sormena sustatzea, euskaraz eta gaztelaniaz, herritartasun kritikoa eta gizarte-kohesioa eraikitzeko (GJH 4, 11. eta 17+1)
- Jasangarritasunean eta klima-aldaketaren aurkako borrokan hezteak (GJH 12,13,14 eta 15)
- Proiektua bereziki zuzenduta dagoen ikuslegoa dela eta, haur eta gazteak, ezinbestekoa da genero-ikuspegia txertatzea eta emakume izateagatik edo genero-identitateagatik pertsonen aurka gertatzen den edozein bereizketa edo indarkeria kontuan hartzea. GJH 5. zeharka txertatuta egongo da proiektuan.



BIR-BIR-BIRNATURALIZATU antzezlanak 2030 Agenda ezagutu eta bereganatzeko xedea du, arte eszenikoen bidez. Entsegu bakoitza, agerraldi bakoitza, txirrista erakargarri eta eraginkor bihurtuko da haurrentzat, eta bidaia batean zehar gidatuko ditu, onura asko duen balio handiko esperientzia batean.

Eszena horietan islatzen diren GJHak ikasleekin batera izendatutako kontzeptu, balio edo helburuei buruz gelditu eta hausnartzeko beharrezko aitzakia izango dira. Eskolarekiko hurbiltasunagatik edo haurren bizitzarekin duten loturagatik hautatutako helburuak aldi berean landuko dira ikaskuntza borobiltzeko.

Antzerkia, beraz, oso tresna aproposa bihurtzen da haurren, aniztasunekin bizitzeko jakin nahia pizteko, haiengan eragin positiboa sortuz, kulturak, pentsamenduak eta emozioak partekatzen dituztelarik, epaitu eta diskriminatu gabe gainerako munduekin soziabilizatzen ikasten duten artean. Interes honek, alde batetik proiektua aintzat hartzen lagunduko die, daukan izaera ludikoagatik eta konfiantza eta askatasun gune izateagatik, eta bestetik, bizitza gizartearekiko bizikidetzara gisa ulertzen, non ekintza orok ingurunea aldatzen duen ondorio bat dakarren. Horrek bidea prestatuko du ingurune fisikoa eta bere baitan hartzen duen guztia errespetatzearen, mantentzearen eta hobetzearen garrantzian eragiteko, bai eta gizarte demokratiko baten berezko diren herritar arteko errespetuaren, tolerantziaren eta elkartasunaren premian ere.

Antzezenaren bidez, aniztasunean elkar-bizitzeari buruzko ezagutzak zabaldu eta sendotu ditzakegu, fikziozko hainbat egoeratan islatuz, aldi berean elkar-lotu, amets egin, imajinatu eta ezagutza horien ulermenerako kontzientzia hartzen dutelarik. Jolas-lanketari esker, ikasleek eurek gizateriaren aurrerapenean duten rola ezagutu eta ulertuko dute, bai eta ingurune natural eta sozialarekin duten elkarreraginak ondorio positiboak izan ditzaketela pertsona guztientzat.

XEDE-PUBLIKOA

“Bir-Bir-Birnaturalizatu” antzezlanana 10 eta 12 urte bitarteko haurrentzat da. 30 minutu inguruko iraupena du. Eskolan edo aisialdiko talde eta antzekoetan lantzeko eta antzezteko antzerkia da.

ARGUMENTUA

Lan honetan elementu nagusia ikasgela bateko ikasleak dira. Ia protagonista guztiek sekretu bat ezkututzen dute, eta inork ikusten ez dituenean, benetan diren moduan agertzen dira. Herriko udalak etorkizuneko uholdeak saihesteko proposamenak eskatuz herritarrei udal kudeaketan parte hartzeko aukera ematen dienean, Ikerren aitak proiektu erraldoi bat aurkezten du, udalerrian ehundaka urte dituen zubia bota eta haren ordez berria eta modernoa eraikitzeko. Eskolak, bere aldetik, ikasleen artean deialdi bat zabaldu eta sustatzen du, aukera jasangarriago batzuk lantzeko.

PERTSONAIAK



LAIA

Oso neska ezaguna da, lagun pila bat ditu eta nota onak ateratzen ditu, badirudi guztia duela. Dantza egitea eta bere buruarekin hitz egiteko ispiluari begiratzea gustatzen zaio.

Sekretua: Lagun bat dauka, egunero elkarrekin hitz egiten dute, haren etxera joaten da eta hark ahal duen guztian laguntzen dio nota onak atera ditzan. Baina ez du klasean esan nahi, esanez gero taldeko lagunik onena izateari utziko diola uste baitu. Bere arimako laguna Marta da.



IKER

Futbolean onena da eta horregatik ospe handia du. Beti joaten da eskolara Realaren elastikoarekin. Ez du lagunik falta. Baina berari benetan natura da interesatzen zaiona.

Sekretua: Bere aita da herrian zubi berriaren proiektua aurkeztu duena. Proiektu horrek hankaz gora jarri ditu eskola eta herria. Udalak herritarrek parte hartzeko aukerak zabaldu ditu beste proposamen batzuk aurkez ditzaten, eta Ikastetxean, taldeka, ingurunearekin eta planetarekin jasangarriagoa den proposamen bat lantzea erabaki dute. Ikerrek ez dio inori ezer esan eta jendeak ez daki bere aita denik zubia proposatu duena.



ARIANA

Neska diskretua da, Laiaren kuadrillakoa, eta oharkabeen pasatzea nahiago du. Dena ondo doakiola dirudi.

Sekretua: Ariana irandarra da, eta musulmana. Honetaz oso harro dago, baina ez da beloa janztera ausartzen inork arraro begira ez diezaion. Besteak bezala izaten eta egoten saiatzen da. Zer egin dezake?



MARTA

Oso neska argia da. Gurpildun aulkian doa. Ia ez du lagunik eta baztertu egiten dute.

Sekretua: Laiaren lagun mina da, inork ikusten ez dituenean. Berari, esatea gustatuko litzaioke, baina Laia oso ezaguna da eta ez du azaldu nahi jendeak esango duenaren beldur. Gainera, idazten ari diren proiektuaren asmatzailea da, nahiz denek uste duten Laia dela.

BESTE PERTSONAIAK

MAHDIS Arianaren ama da eta Hijab darama. Abokatua da, baina eskolan ere lan egiten du, arratsaldeetan garbiketari laguntzen.

MILA Eskolako zuzendaria.

AITOR Haurren tutorea.

PELLO Ikerren aita da. Oso zalapartatsua, txeratsua eta dibertigarria.

IRATI Ikerren ama.

LIBE Laiaren kuadrillako neska bat da, eta proiektuan parte hartzen duen lantaldeko kidea.

BEÑAT Ikerren laguna eta futbol taldekoa.

SIMÓN Ikerren laguna da, despistatu samarra eta futbol taldekoa.

SUSANA Gelako neska bat da. Protagonista izatea gustatzen zaio.

JANTZIAK

Jantziak oso xaloak dira, eskola bateko haurrak antzezten baitira, egunero jantzen diren bezala. Aipatzen ditut xehetasun batzuk, Iker bezalako pertsonaiaren bati buruz, beti Realaren ekipamenduarekin jantzita doana, edo Madhis, beloa daramana. Imajina dezakezue nola jantzen diren beren nortasunaren arabera, ezer azpimarragarririk ez dagoen arren.



ESZENATOKIA

Askotan, eskolan, ez dago baliabide askorik oihalak edo fokuak eduki ahal izateko. Batzuetan, eta zorte handiz, areto berezi bat izaten dugu eszenatokiarekin, eta bi sarrera ezker eta eskuin aktoreentzat, benetako antzokietan bezala. Beste batzuetan berriz, eskolako festarako jartzen duten oholtza, liburutegia, erabilpen anitzeko gela edo jantoki batekin konpondu behar izaten dugu.

Nahikoa da! Irudimena da tresnarik indartsuena. Benetan beharrezkoa antzezleak dira. Iluntasunean eszena-aldaketa bat egiteko modurik ez badago, fokurik ez dugulako, begi-bistan egiten da, gelako argiarekin, behar ditugun aldaketak publikoaren aurrean eginez.

Askotan pertsona gehiago egoten dira gelan pertsonaiak baino, eta antzezlanean beste zeregin batzuk egiten ager daitezke. Adibidez, objektuak lekuz aldatuz, gauzak ekarriz edo agertokitik kenduz. Protagonismoa eman dakieke, egiten dutenean musika jarritz, koreografiaren bat eginez eta modu berezian jantziz. Laburbilduz, ikasgelako pertsona guztiek parte har dezakete testuarekin edo testurik gabe modu askotan elkarrekin lan eginez. Horrela ordeztzen da oihal, ate, jantzi handi edo argi distiratsurik eza. Artisau-lana da eta ederra.

Barrualdeko espazioak, pertsonaia baten gela, etxe bateko jangela, ikasgela, etab. Ezkerrekoa eta eskuinekoa tartekatuz bereiz daitezke, antzezleak eszenatokiaren izkina batean edo zati txiki batean eszena horretako elementu bereziren batekin jarritz: aulki bat, mahai bat, ispilu bat edo behar duzuenak.

Eszena kolektibo baten kasuan, patioan edo kalean, agertokiaren erdialde osoa erabiltzea gomendatzen dizuet.

Espero dut iradokizun gutxi hauek lagungarri izatea, baina ez dira gida txiki bat besterik.

1. AGERRALDIA

Patioan. Neska-mutil batzuk azaltzen dira Iker sorbaldan dakartela, sartu dituen golak ospatuz. Aitak zoriondu egiten du eta gogor entrenatzen jarraitzeko animatzen du. Bakarrik geratzen direnean, zubiari buruz eztabaidatzen dute.

GUZTIAK: Aupaaaa!!! Aupaaaa Iker!!! Txapeldun!!!!

ARIANA: A ze golak!! Ea bihar dugun partidari beste horrenbeste sartzen ditudan.

LAIA: Eta liga irabazten dugun.

BEÑAT: Baietz guk irabazi!

GUZTIAK: Aupa Iker!!!

BEÑAT: Aho bete hortz geratu dira. Onena zara.

SIMON: Ikusi diezu aurpegia? Sekulako jipoia eman diegu.

BEÑAT: Hara Iker, zure gurasoak.

SIMON: *(Pellori)* Onena da.

PELLO: Kaixo mutilak. Horrela, horrela. Horrela jarraitu behar duzue. *(Semeari bizkarrean zaplatatxo batzuk ematen dizkio)* Noiz duzue finala?

ARIANA ETA LAIA: datorren astean.

PELLO: Ba irabaztera, e? Segi entrenamenduekin topera.

IRATI: Aitak bilera bat du orain, Iker, baina ez da zure notei buruz.

PELLO: Berehala amaituko dugu. IRATI: Ez dugu sartu beharrik. Joango gara liburutegira?

IKER: Nik nahiago dut plazara lagunekin joan.

SIMON: *(nolabaiteko txuleriaz)* Konplitu beharra dago.

Lagunak barre eta ospakizun artean joaten dira.

IRATI: Ea ba! Goazen! Aldatu. Zure bila behin etorriko eta...

BEÑAT: Plazan itxarongo dizugu.

SIMON: (*Arianari badoazen bitartean*) Jatorra da Ikerren aita.

IKER: Hobe duzue.

IRATI: Nola hobe dugula?

IKER: Txantxa da, ama.

IRATI: Tira, tira, nahi duzun bezala, baina aste honetan hartu zenuen liburua itzuli eta beste bat hartu behar dugu. Aldatu.

IKER: Ama, ondo nago horrela.

PELLO: Utziozu, Irati, emakumea.

IRATI: Izerdi usaina du.

PELLO: Garaipenaren froga, ezta?

Semeari begi-keinu bat egiten dio, baina hau serio dago.

IRATI: Pello, ez esan txorakeriarik. Jantzi hau, besterik ez bada ere.

Ikerrek kamiseta aldatzen du.

PELLO: Zer duzu?

IKER: Norekin hitz egin behar duzu eskolan?

IRATI: Laneko kontuak dira

IKER: Badakit zer diren. Norekin hitz egin behar duzu?

PELLO: Hara listopasatua. (*bizkarrean zapladatxo batzuk ematen dizkio*)
Aitor eta zuzendariarekin.

IKER: Irakasleek ez dute zure proiektua atsegin. Eta nire lagunei ere ez, baina ez dakite zu zarela egin nahi duena.

IRATI: Ez diezu kontatu?

IKER: Lotsa ematen dit. Egunkarian ateratzea besterik ez duzu nahi.

IRATI: Seme, zergatik hitz egiten diozu horrela aitari? Nork esan du hori?

IKER: Txarra da herriarentzat eta planetarentzat.

PELLO: Zer jakingo duzu zuk, Mesi? Karkarkar! Zubiak mapan jarriko gaitu, kakanarru. Eta, jakina, egunkarian aterako gara. Mundu guztiak jakingo du Berrobi non dagoen. Deigarri izango gara eta turistak etorriko dira ikustera. Horrek lana eta dirutxoia ematen ditu, eta, gainera, klima-aldaketaren ondorioz etor daitezkeen uholdeak saihesten lagunduko du, oso zubi garaaaaia izango delako, karkar!

IKER: Zuri ez dizu axola aldaketa klimatikoak.

IRATI: Nahikoa da Iker! Zoaz jolastera eta hitz egingo dugu etxean. (*Iker korrika doa*) Ondo azaldu beharko diozu, beste modu batean begira diezaion, Pello.

PELLO: Norbaitek ideia arraroak sartu dizkio buruan. Azalduko diet, hitz egiten uzten badidate noski, ideia bikain hau. Ez zaitez kezkatu!

IRATI: Hitz egiten uzten badizute? Pello... ezagutzen dugu elkar. Lasaitu, e?

PELLO: Urduri ikusten nauzu?

Barregarri, Iratik sinetsi ezinik begiratzen dion bitartean.

IRATI: Egidazu kasu.

PELLO: Beti, beti egiten dizut. Karkarkar

2. AGERRALDIA

Gela batean.

PELLO: Kaixo, zer moduz?! Mila... ezta?

Eskua eman eta gogor mugitzen du, Milaren gorputz osoa barregarri astinduz.

MILA: (*Hizketan ari den bitartean, eskua helduta jarraitzen du*) Kaixo, zer moduz? Aitorri hots egin diot, Ikerren tutoreari, ikasketa-zuzendaria denez bera ere bertan egon dadin.

Esertzera gonbidatzen dute eta Aitorrek Ikerren aitari eskua eman behar dion uean, hau hitz eginez alde batetik bestera ibiltzen hasten da. Aitor eta Mila eseri egiten dira.

PELLO: *(Eskuak asko mugitzen ditu hitz egiten duen bitartean)* Ederki. Beno, zer? Nire semeak burua ideia zoroz beteta dauka, udalari aurkeztu diodan proiektua dela eta. Ironiaz egiten du barre.

MILA: Barkatu...

PELLO: Ez dut ulertzen, egia esan, zergatik eman behar duen eskolak iritzia udalean aurkezten diren eta batere ez dagozkien proiektuei buruz.

MILA: Begira... *(Biak batera jaikitzen dira eta keinu egiten diote berriro eser dadin, baina ez du kasurik egiten. Berriro esertzen dira)*

PELLO: Argi eta garbi hitz egingo dut uler nazazuen. Hirigintza-proiektu batean, eskolak ez du batere zeresanik. Hemen hurrek ikasi eta dagokiena da egin behar dutena! Eta futbol partidak irabazten badituzte, hainbat hobe.

AITOR: *(Oso atsegin)* Beno, gauza interesgarri gehiago ere egiten ditugu...

Pello alde egiteko jaikitzen da

MILA: Mesedez, Pello. Eser zaitzke mesedez? Hartu. Laranja Kas bat lastotxoarekin opari. Eta bitartean... azalduko dizut.

Pelloc harrিতa begiratzen dio eta entzuten ari denaren plantak egiten dituen artean lastotxotik hurrupatuz eta zarata handia eginez edaten du.

MILA: Udalak pentsatu du garrantzitsua dela herritarren parte-hartzea, dakizun bezala 2030 agendak sustatzen duen gisa, herri honetan bizi diren pertsona guztientzat hain garrantzitsua den proiektu hau kudeatzeko. Haurrentzat ere bada. Proiektu honek eragina izango du etorkizunean eta haiengan eragina izango du.

Aita jaiki egiten da, baina biek keinu bat egiten diote, berriro eser dadin, lastoarekin hurrupatzean dagokion zarata eginez.

AITOR: Hainbat talde antolatu dira eskolan, eta urtero proiektu berrietan lan egiten dugunez, ikasleek izugarri gogotsu hartu dute, proiektua beren herria hobetzeko erronka dela ikustean. Proposamen interesgarrienak jaso eta udalari aurkeztuko zaizkio.

MILA: Gure erronka hiri eta herri jasangarriagoak lortzea da. Norabide horretan egin behar dugu lan. Pertsona eta irakasle bezala eta eskola gisa ere, hartzen dugun konpromisoa da.

PELLO: Denbora galtzen ari zarete hitzontzikeriekin. Hemen eta udaletxean.

MILA: Guk ez dugu horrela uste.

PELLO: Yupiren munduetan bizi zarete! (mugikorra atera du. Aitor eta Mila batera jaiki dira berriro eser dadin gonbidatzera, baina dagoeneko badoa) Joan beharra daukat. Lanari zor! Eskerrik asko Kas-agaitik!

Aitak edalontzia ematen dio zuzendariari eta gelatik alde egiten du. Milak eta Aitorrek hasperen egin dute etsita. Lasaialdiak une barregarri bat dakar bientzat. Zurrutadak lastoarekin imitatzen dituzte, eta aitaren ibilerak, paumak balira bezala, barre egiten dute.

MILA: Beno, banoa, berandu iritsiko naiz etxera. Edalontzia ematen dio Aitorri.

AITOR: Bai, bihar arte! Iker sartu da, urduri, Aitorrek paumaren ibilera imitatzen jarraitzen duen bitartean.

IKER: Joan al da?

Aitorrek arropa hautsa edo euliak astintzen ari balitz bezala disimulatzen du.

AITOR: Zure aita? Bai, oraintxe joan da. Azkar bazoaz harrapatuko duzu.

IKER: Ez, ez dut nahi.

AITOR: Zerbaitek kezkatzen al zaitu, Iker?

IKER: Ez esan klasekoei zubi berriaren proiektua nire aitak aurkeztu duela.

AITOR: Zergatik ez duzu nahi jakitea?

IKER: Nire lagun izateari utziko lioketelako.

AITOR: Aizu Iker, zure aitari bere proiektua zoragarria iruditzen zaio, enpresari handia da eta horrek ez du ezer txarrik. Guk hobetu nahi dugu. Ona da eskolak parte hartzea, ez duzu uste?

IKER: Bai

AITOR: Harro al zaude zure proiektuaz? Nola doa?

IKER: Beno, ia ez dit lo egiten uzten. Ideia asko ditut eta...oso dotorea da.

AITOR: Esadazu zerbait... Nola imajinatzen duzu etorkizuneko hiria? Zure hiria.

IKER: Ba, ez dakit... pertsona guztientzako hiria, desberdinak... garen arren.

AITOR eta IKER: inor atzean utzi gabe. (*Barre egiten dute*) Ondo ikasi duzu. Seinale ona litzateke...

IKER: Ez dakit.... talde lana egitea uste dut, eta niri txolarreak dituen herri bat gustatuko litzaidake.

AITOR: (*barrez*) bai, hala izango litzateke. Zuhaitzak, zuhaitz pila... Oso garrantzitsua, Iker.

IKER: Eta... paumak?

AITOR: Nola?

IKER: Deus ez, tontakeria zen. Lehen pauma ematen zenuen.

AITOR: Ah! Harrapatu nauzu? Karkar. Bai, animaliak imitatzea gustatzen zait. Nire gauzak

IKER: Bihar arte.

AITOR: Ziur zure aita ere harro egongo dela zure taldearen proiektuarekin, irabazi edo ez.

IKER: Bai, seguru.

AITOR: Bihar arte.

3. AGERRALDIA

Etxean. Laia telefonoz ari da norbaitekin (Marta). Koaderno batean ibaiari eta jasangarritasunari buruzko talde-proiektu baterako apunteak idazten ari da.

LAlA: Zer egingo nuke nik zu gabe? (*barrez*) Itxaron, zaude..... Ibaiaren bir-na-tu-ra-li-za-tzea uholdeetatik babesteko..... eta zer da birnaturalizatzea?..... A bai, egon, ea ulertu dudan... Zertarako?..... ibaiaren ibilgua eta ibaiaren ertzak berreskuratzeko, garbitzeko..... aja bai, ulertzen dut..... bai, ibaian ur garbia izateko, biodibertsitatea berreskuratzeko, oso azkar hitz egiten duzu, itxaroon, hirietan aire garbidun birrikak izateko, izurriteak kontrolatzeko... bai eta gozatzeko, noski, dena idatzi dut..... Beraz, guk ez dugu beste zubi bat diseinatuko? Ez dakit... ez da beharrezkoa. Bai..... hau oso zaharra da, balio handia du eta iraunarazi egin behar da, ados. Ze bizkorra zaren, neska, eskerrak gure

taldean zauden. (*Barre*) Eskerrik asko. Aguuuuuuur. Bai, ea esaten diedan ikusten ditudanean. Ez, ez, benetan, aste honetan beranduenez, lasai.

Eskegi ondoren ispilura begiratzen du.

LAIA: Gezurti bat zara, Laia.

Bere burua begiratu gabe buelta ematen du.

LAIA: Egun batean denei esango diet Marta nire laguna dela eta gainera neska sinestezina dela. Ispiluan begiratu berriro.

LAIA: Gaur ez, gaur ez diet esango, baina laster bai.

4. AGERRALDIA

Laia etxetik atera eta bere kuadrillakoekin topo egiten du kalean.

LAGUNAK: Kaixoooo.

LAIA: Kaixoooo. Oso hunkituta nago, ideia pila bat bururatu zaizkit proiekturako.

SUSANA: Eta zeri buruzkoa da ba proiektua?

LAIA: Ibaia birnaturalizatzeari buruz.

LIBE: Hau hitza. Ez nuen sekula entzun!

ARIANA: Ezta nik ere

SUSANA: Ba nik bai.

LIBE: Zer esan nahi du?

SUSANA: Zer izango da ba... (*Denek begiratzen diote*) Ba hori! Super naturala izatea. Karkarkarkar.

IKER: Bai, zu bezala.

Denek barre egiten dute.

LAIA: Bai, orain azalduko dizuet, baina gainera proiektua aurkezteko modua ere bururatu zait.

SUSANA: Nola?

LAIA: Bada, rap bat eginez edukien eskema batekin, kontatu nahi dugunaren gidoi laburtua balitz bezala.

IKER: Baina... paperean txukun aurkeztu behar da eta.

LAIA: Bai, baina aparte, gurasoei eta ikastetxe osoari aurkezteko modu bat ere badelako.

SUSANA: Ba guk atsegin dugu, ezta?

ARIANA, ETA LAGUNAK: Bai.

IKER: Inork ez digu esan gurasoentzat aurkeztuko dugunik.

LIBE: Eskolan egiten diren proiektu guztiak aurkezten dizkiegu gurasoei.

SUSANA: Bistan da!

LAIA: WhatsApp taldean galdetuko diegu falta direnei, ea zer iritzi duten?

SUSANA: Itxaron, itxaron, egon... Baina, beste talde bat egin dezakegu, ezta?

LAIA: Badugu talde bat

SUSANA: Bai, baina beste bat...

Denek begiratzen diote.

SUSANA: ... Martatxo za-puz-tailea ez dagoen bat. Ez da konturatuko, ez dugulako taldetik atera behar. Karkarkar.

Horretan hasten da mugikorrarekin, inork ez du ezer esaten.

LAIA: Bai baina bera ere lantaldean dago proiektua egiteko.

SUSANA: Behartu gaituztelako, guk ez dugu aukeratu.

IKER: Aitorrek egin zituen taldeak.

LIBE: Azkenean jakin egingo du, ikusiko duzu.

ARIANA: Ez dakit ondo iruditzen zaidan.

SUSANA: Ixo! Eginda!

ARIANA: Galdetu taldeko besteei ea Laiaren ideia gustatzen zaien.

SUSANA: Hori egingo dut! IKER: Ba nik ez dakit dantzan.

LIBE: Futbolean jokatzeko baldin badakizu, dantzan egiten badakizu.

IKER: Baina rap batekin, ez da dantzatu behar, ezta?

GUZTIAK: Baiiiiiiiii

Guztiak rap dantza bat imitatzen joaten dira, Iker izan ezik. Denak barrez doaz.

5. AGERRALDIA

Ariana eta ama etxean. Amak ordenagailuan lan egiten du eta Arianak bere etxeko lanak egiten ditu.

ARIANA: Ama, zuk zergatik janzten duzu beloa hemen inork behartzen ez bazaitu?

MADHIS: Horrela, bat-batean? Lanean ari naiz...

ARIANA: Ni ere etxeko lanak egiten ari naiz.

MADHIS: Ez ditzaket bi gauza batera egin.

ARIANA: Beti egiten dituzu gauza asko aldi berean. Barre egiten dute.

MADHIS: Zaila da azaltzen. Arianak eskuekin keinuak egiten ditu azal dezan.

MADHIS: Barruko zerbait da. Niretzat ikur bat da... zer naizen adierazten duena. Eta garrantzitsua da niretzat besteek jakitea musulmana naizela. Eta tira. Ondo sentiarazten nau, neure buruarekin.

ARIANA: Bai ama, baina nire lagun batzuek... ikusten zaituztenean... beloa janzteko matxista dela pentsatzen dute.

MADHIS: Maitea, norbaitek jartzera behartuko banindu, matxismoa izango litzateke. Baina nik nahi dudalako janzten badut, ez da. Ez duzu uste? Jendeari nor naizen adieraztea gustatzen zait.

ARIANA: Baina feminista izan zaitezke eta zapia eraman?

MADHIS: Nahi duzulako badaramazu eta berdintasunean sinesten baduzu, azkenean nahi duzuna egiten ari zara, ez zaitu inork behartzen. (Isiltasuna) Orain ulertzen dut zergatik zauden hain arraro hona bizitzera etorri garenetik.

ARIANA: Ez dakit zergatik esaten duzun, ama.

MADHIS: Horregatik ez duzu nahi zurekin ikus nazaten? Orain berriak gara herrian, baina goiz edo berandu jakingo dute. Jakingo dute ni zure ama naizela. Irakasleek badakite, noski, baina zure lagunek ere jakingo dute.

ARIANA: Badakit.

MADHIS: Eta orduan, zer duzu?

ARIANA: Gogoratzen duzu Donostiara joan ginen egun hura? Nola begiratzen zizuten? Ez dut nahi eskolan niri hori gertatzea. Ez dut nahi arraro begira nazaten. Besteak bezalakoak izan nahi dut. Eta, gainera, euskaraz egiten dudanez, inor ez da konturatzen desberdina naizenik.

MADHIS: Horregatik zoaz belorik gabe? Oharkabea pasatzeko?

ARIANA: Bai.

MADHIS: Eta etorkizunean eramatea gustatuko litzaizuke?

ARIANA: Ba ez dakit.

MADHIS: Helduago zarenean pentsatuko duzu. Ez da ezer gertatzen.

ARIANA: Batzuetan baietz iruditzen zait eta beste batzuetan ezetz, burutapen txarrak ekartzen zaizkidalako, oroitzapen itsusiak emakumeek Iranen zapirik eraman nahi ez izateagatik nozitzen dutenagatik. Eta amorrua ematen dit.

MADHIS: Normala da sentitzen duzuna, laztana. Baina... espero dut garenagatik ez lotsatzea. Eta espero dut nire alaba zarelako ez lotsatzea.

ARIANA: Ez naiz lotsatzen

MADHIS: Orduan, noiz kontaktuko diezu eskolan zure laguneri? Noiz esango diezu zure ama naizela?

ARIANA: Laster, laster, ama.

Alde egiten hasi da.

MADHIS: Psssssssch, noiz da laster?

ARIANA: Besterik gabe.... laster.

6. AGERRALDIA

Gela batean. Zuzendaria eta tutorea ikasleekin. AITOR: Egun on. Esan didate egonezina duzuela zubi berriaren egitasmoa eta herriaren ehun urtetik gorako zubia kontserbatzeko zuen proiektua dela eta. Ikasle guztiek zarata egiten dute oinekin edo eskuekin erritmoa eramanez.

GUZTIAK: Zubia ez bota, zubia ez bota!

AITOR: Argi gera dakizuela lan hau garrantzitsua dela eskolarentzat; izan ere, bide batez, ikertu egingo dugu oso garrantzitsua den gai honetaz... nola da?

Eskuak altxa eta erantzuteko keinua egiten du. Hurrek eskua altxatzen dute eta Aitorrek banan-banan txanda ematen die erantzun dezaten.

MARTA: Biodibertsitatea.

LAIA: Jasangarritasuna

IKER: Planeta.

AITOR: Eta batez ere...

Gela osoa seinalatuz.

IKASLEAK: Pertsonak.

MILA: Oso pozik gaude parte hartu ahal izateaz, baina jakin behar duzue hori dela baliotsuena. Ahotza izatea, gai honetan ahotza izango duzuela. Abentura bat da! Eta aparta da horrelako gai batean iritzia eman ahal izatea eta iritzi hori proiektu batekin adierazi eta argudiatu ahal izatea!!

IKER: (*eskua altxatzen du*) Eta irabaz dezakegu?

AITOR: Hori ez da funtsezkoa, Iker. Ikasle guztiek batera hitz egiten dute. Milak isilik egon arte itxaroten du.

MILA: Garrantzitsua dena, aurkezteko aukera izatea da. Konturatzen zarete? Eskolako ikasle guztiak proiektua egiten duzuen artean ikasten ari zarete. Kontuan izan deialdi honetan aurkezten diren pertsonak eta enpresak jakitunak eta adituak direla. Ezagunenetako bat, gainera, herri honetan bizi da. Ezta, Iker? Haiekin lehiatzea ez da gure helburua.

SUSANA: Nor da, Iker?

IKER: Zer axola dio? Nik irabazi egin nahi dut.

SUSANA: Begi-bistakoa.

AITOR: Sormen handiko lan batzuk ikusi ditugu eta aurrera egin behar da. Adibidez, zuen taldean, Marta, amaitzen ari zarete, ezta?

MARTA: Bai, ia dena garbira pasa dugu eta oso ondo goaz.

AITOR: Jakin dudanez, azken sorpresa bat ere prestatu duzue. Martak harrিতa begiratzen die bere taldekideei.

AITOR: ezusteko musikala.

MARTA: Bai? (Batez ere Laiari begira jarraitzen du)

LAIA: Beno, oraindik ez dugu guztiakin hitz egin.

SUSANA: Ia amaituta dago eta.

MARTA: Nola amaituta?

AITOR: Laia ikus dezagun, zure ideia da, ezta? Egin entsegutxo bat eta erakutsi iezaguzu.

LAIA: Ez, nik ez. Martak etengabe begiratzen dio.

LIBE: Ba guk egingo dugu Ikerrekin.

MARTA: Baina orduan honi buruz ezer ez dakien bakarra naiz.

SUSANA: Oraintxe jakin duzu, besterik gabe.

IKER: Nik ez dakit dantzan

LIBE: Futbolean jokatzen badakizu, dantzan badakizu!

IKER: Ezetz ba!

AITOR: Neska-mutilak, egin behar duzuen gauza bakarra pixka bat kantatzea da, sortu duzuen rap hori nolakoa den ikus dezagun.

SIMON: Rap bat?

BEÑAT: Zer ederra!

Libe eta Susana atera dira klasearen aurrean kantatzera. Ikerrek bere aukitik egiten du. Rap musika oinarri bat jarri eta abesten hasten dira. Obraren zati honetan ez dute dantzarik egingo.

SUSANA ETA LIBE: Bir Bir Birnaturalizatu

SUSANA: osasuna ez hondatu

LIBE: gehiago ez kutsatu

SUSANA: berriro ez ehizatu

LIBE: birnaturalizatu (*bis*)

SUSANA: Ibaiaren bideak
zainduko ditugu

LIBE: Sasiak garbitu
Birnaturalizatu (*bis*)

SUSANA: animaliak
Landareak

LIBE: mikroorganismoak
aukerak amestu (*bis*)

SUSANA: Zer egingo dugu ba?

IKER ETA LIBE: Inor atzean ez utzi

SUSANA: Zer egingo dugu ba?

IKER ETA LIBE: Hil arte bizi

HIRUROK: Bir Bir Birnaturalizatu (*bis*)

Gela osoak txalotzen du, Marta eta Laiak ez ezik. Txirrinak jo eta denak gelatik irteten dira.

Hemen duzue opari bat, iradokizun moduan. Klik batean, antzezlanean agertzen den rapa abestu ahal izateko musika oinarri bat aurkituko duzue. Beste asko ere badaude youtuben. Niri hau gustatu zitzaidan, erritmo dibertigarria eta oso egokia duelako gure gaiarentzat. Orain, dantzara!

<https://www.youtube.com/watch?v=IJGWfFXKkoM>

7. AGERRALDIA

Korridorera irten dira denak. Madhis erratza pasatzen ari da eta batzuk begira eta kuxkuxean geratzen dira. Taldetxo batean hitz egiten duten bitartean, hark zeharka begiratzen die.

SUSANA: *(buruan fular bat jartzen du)* Ondo geratzen zait? Denek barre egiten dute, baina Madhisen begiradarekin topo egitean, bat-batean isiltzen dira.

BEÑAT: Nire izeba amonak ere badu horrelako bat.

SIMON: Musuzapi bat?

BEÑAT: Beno, beltza da. Lehen, nire amari eskolak ematen zizkioten andre guztiak horrelakoak ziren. Gauza hori zuten buruan, eta zakarragoa eta beltzagoa zen.

LIBE: Astoa! Horiek mojak ziren! Denek barre egiten dute.

BEÑAT: Bale ba.

SUSANA: "Bale ba" dio!

SIMON: Haiek azpian ilea zuten.

LIBE: Eta honek ere bai.


SUSANA: Begi-bistakoa.

BEÑAT: Bai, baina andre haiek...

LIBE: Mojak! Mojak!

BEÑAT: Moja haiek ile guztia motza eta grisa zuten, den-denak.

SIMON: Argia ikusten ez duenez, hitsa eta zimela geratzen delako da hori,



belarra moztu ondoren ere lehorra eta horia geratzen den bezala. Ariana agertzen da.

ARIANA: Hori ilea tindatzen ez dutelako da, Simon.

Barre egiten dute

BEÑAT: A...

MADHIS: Kaixo.

DENAK: (*Ariana izan ezik*) Kaixo.

MADHIS: Zerbait galdetu nahi didazue?

IKER: Nola duzu izena?

MADHIS: Madhis.

DENAK: A...

SUSANA: Berria zara, ezta? Eskola garbitzen duzu?

MADHIS: Laguntzera etorri naiz, eta datorren astean nire herrialdeko postre tipiko bat egiten erakutsiko dizuet, izugarri gustatuko zaizue. Aingeru-ilearekin eta oso gozoa.

MARTA: Asko gustatzen zait aingeru-ilea. Amonaren etxean beti... Libek moztu egiten du.

LIBE: Orduan... ez zara garbitzailea?

SIMON: Sukaldaria izango da.

MADHIS: Abokatua naiz baina zuen eskola polit honetan laguntzea gustatzen zait. (*Martari*) Nola duzu izena?

MARTA: Marta.

MADHIS: Eta zure amonak erakutsi dizu aingeru-ilezko pastelak egiten?

Erantzun behar duenean, Libek moztu egiten du.

LIBE: Orduan... ikasleren baten ama zara?

MADHIS: Bai.

ARIANA: Rapa eta proiektua amaitu behar ditugu. Ni banoa.

LIBE: Bai, goazen, goazen.

SIMON: Agur! (*Madhisi*)

MADHIS: Agur! Eszenatokitik desagertzen da, garbitzen.

LIBE: Lehenengo garbitzen, gero sukaldean aritzen dela, ondoren abokatua... gezurretan ari da ziur.

SUSANA: Bistan da!

ARIANA: Beti kritikutzen. Aspergarriak zarete.

MARTA: Zergatik esan behar luke gezurrik?

SUSANA: Aizu, zer gertatzen zaizu zuri? (*Arianari zuzenduta*)

ARIANA: Berandu gabiltza. Denek alde egin dute, Martak ez ezik, bakarriketan geratuko da.

MARTA: Gogaitu egiten zaitu buruan zapia daramalako, eta ni gurpil-aulkian joateak ere gogaitu egiten zaitu. Eta ni... Ni zuek bezalakoa ez izateak gogaitzen nau, beste modu batean begira nazazuen. Eta moztu gabe hitz egiten utz diezadazuen eta egiten dudan guztia interesgarria iruditu dakizuen, Laiak egiten duen guztia interesgarria iruditzen zaizuen bezala. Bada garaia esateko, Laia, zuk ez duzu nahi edo beldur zara, baina nik mundu guztiak jakitea nahi dut. Zu eta biok lagunak gara. Polita da. Laia nire adiskidea da. Nire lagunaaaa! Haiengana noa. Ea gaur behingoz kontatzen duen.

Eszenatokiaren alde batetik irteten da eta bere kuadrilla bestetik sartzen da. Klean daude.

LAIA: Ariana, ez dakit zergatik sartu zaizun presa bat-batean.

SUSANA: Haserre zaudela dirudi.

SIMON: Beti ari baitzarete kritikutzen.

SUSANA: Ariana duzu izena? Berak badaki hitz egiten.

SIMON: Ondo da.

LIBE: Entseatu nahi duzu?

ARIANA: Bai

IKER: Hemen entseatu behar genuen patioan. Ezta?

SUSANA: E, aizue! Zapuztailea dator, goazen.

LAIA: Baina raparena kontatu behar genion eta, berarekin entseatu behar dugu.

SUSANA: Goazen, bizkor! Karkarkar.

Denak alde egiten dute, Ikerrek ez ezik. Marta iritsi da.

8. AGERRALDIA

Patioan.

MARTA: Ez dut gehiago jasango.

IKER: Nahi baduzu etxera lagunduko dizut.

MARTA: Nazkatuta nago.

IKER: Zer duzu?

MARTA: Ez duzu plantarik egin beharrik. Ihes egin dute beraiekin joan ez nadin. Baina badaude ez dakizkizun gauza batzuk.

IKER: Nik... egiaz... ez dut ulertzen zergatik egiten duten.

MARTA: Noski. Zuretzat dena da erraza. Zu bikaina zara eta futbolearen jokatzeko errespetatzen zaituzte. Beno... nirekin ikusten ez zaituzten bitartean.

IKER: Hori txorakeria!

MARTA: Bai, txorakeria, baina hala da. Nik ez ditut arauak jartzen.

IKER: Eta nork jartzen ditu?

MARTA: Inork ez, ikusezinak dira, baina hor daude.

IKER: Laiak? Laiak jartzen ditu?

MARTA: Ez dituela inork jartzen, ezetz.

IKER: Eta nola dakizu? Laia aparta da.

MARTA: Laia beldur da... guztioi oso lagun onak garela esateko. Hain lagun onak garenez, nik lana egiten eta beretzat oso arraroak ziren zenbait hitz ulertzen lagundu diot. Jakin dezazun.

Susana Ikerren bila dator eta elkarrizketa entzuten du, besteei ere hurbiltzeko keinuak eginez.

IKER: Baina Laia oso bizkorra da eta. Berak azaldu digu proiektua nola egin.

MARTA: Bizkorra da, bai, baina ez zekien gehiegi gai honi buruz eta nik asko lagundu diot. Tira, azkenean talde berekoak gara eta hori da egin behar dena, ezta?

IKER: Bai, baina zorionak berak jaso ditu eta ez zuk. Eta denek pentsatzen dute proiektua berari bururatu zaiola.

MARTA: Badakit. Nazkatuta nago! Nazkatutaaaa! Denak hurbiltzen ari dira ur puxikak eskuan dituztela. LIBE: Zergatik zaude nazkatuta?

SUSANA: Gezurtia.

IKER: Ez da gezurtia.

SIMON: Zer dakizu zuk?

LIBE: Ez honetan sartu, Iker.

SUSANA: Gezurtiaaaa!

LIBE, SUSANA; SIMON: Gezurtiaaaa!

BEÑAT: Nahi duzu bat? *(ur puxikarekin Marta mehatxatuz)*

LAIA: Ez du gezurrik esaten, utzi bakean!

ARIANA: Nola ezetz? Proiektua zure ideia izan zen. *(Laiari esanez)*

LAIA: Sekretu bat kontatu behar dizuet. Lagun bat daukat eta egunero hitz egiten dugu elkarrekin.

Susanak keinuak egiten ditu, guztiei jakinarazi nahian bera dela.

LAIA: Nire etxera etortzen da.

Susanak berriz ere keinuak egiten ditu, bera dela adierazi nahian.

LAIA: eta ahal duen guztietan laguntzen dit nota onak atera ditzadan.
Susanak keinua aldatu du, hori ez baita inoiz gertatu.

LAIA: Eta orain arte esan ez badut, taldeko beste lagunentzat bikainena izateari utziko niola uste nuelako izan da. Eta beldur nintzen. Nire laguna Marta da (bere ondoan jartzen da) eta berari berdin zaio beldurtia eta tentela banaiz.

DENAK: *(Ariana eta Iker izan ezik)* Zer?

LAIA: Eta bai, bera da proiektua ezagutzen duena eta izugarri dakiena, eta bera gabe ez ginatekeen prest egongo udalean aurkezteko.

SUSANA: Bihotzekoak emango dit

IKER: Nik ere badut beste sekretu bat. Denok eskuan daramatzaten puxikak askatu eta lurrera erortzen dira aldi berean. Susanak horietako bat hartu eta bekokian jartzen du lurrean esertzen den bitartean.

IKER: Nire aita da herriko zubi berriaren proiektua aurkeztu duena.

GUZTIAK: Zer?

SIMON: Baina oso jatorra da eta.

IKER: Eta horrek zer zerikusi du, Simon?

Simonek beste puxika bat hartu eta kopetan jarri du lurrean eseri eta pentsatzen duen bitartean.

LAIA: Zein ausarta zaren!

IKER: Kutsatu egin nauzu.

Iker Martaren eta Laiaren ondoan jarri da eta hirurek irribarre egin dute.

ARIANA: Nik ere badut zer kontatu.

SUSANA: Benetan?

ARIANA: Agian ez da beharrezkoa.

SUSANA: Kontatu, ez gaitzazu orain jakinminez utzi.

ARIANA: Irangoa naiz eta musulmana. Nire ama Madhis da, lehengoan ezagutu zenutena.

GUZTIAK: Zer? LIBE: Lotsagarri geratu naiz (*bere buruarentzat bezala esaten du lurrean lotsatuta esertzen den bitartean*)

ARIANA: Naizenaz oso harro nago, baina ez nintzen beloa janzten ausartzen zuetako inork arraro begiratu ez ziezadan. Besteak bezalakoa izan nahi nuen. Ez nekien zer egin.

LIBE: A zer ergelak garen!

SUSANA: Ergela zu izango zara.

LIBE: Nik Martaren inbidia nuen.

GUZTIAK: Zer?

LIBE: Norbaitek besoan edo hankan igeltsua daramanean, edo ebakuntza egin eta bisitan joaten zaizkionean edo hortzetan aparatua duenean, nik hori atsegin dut; horregatik, batzuetan aluminiozko papera jartzen dut bracketak banitu bezala. Edo zurea bezalako aulki batean, inork eraman gabe zoazenean, helduagoa bazina bezala. Amorru modukoa ematen zidan.

BEÑAT: Ba nik ez daukat sekreturik, uste dut...

SIMON: Nik ere ez.

Guztiak Susanari begira

SUSANA: Orain sekretutxoak esan behar ditut? Ez dakit ba zer kontatu. Etengabe hitz egiten dudala, eta hainbeste hitz egin gabe atsegina izan nahiko nukeela.

Denek barre egiten dute.

SUSANA: Eta bizkorra izan, ederra, futboleko Iker baino hobea eta nota bikainak atera. Baina ez dut uste horrelako ezer naizenik, neurri handitan esan nahi dut. Hitz egin bai, neurri handitan egiten dut. Horretan ona naiz.

LAIA: Hori da zure dohaina.

SUSANA: Bistan da!

MARTA: Gutako bakoitza ezberdina da. Horrek egiten du gure taldea berezi.

SUSANA: Eta orain zer egingo dugu?

LAIA: Rapa luza genezake gure arteko aniztasunaz ere hitz egiteko.

MARTA: Hori da! Ibaia birnaturalizatzea eta baita gure ikasgela.

IKER: Ibaiaren ibilgua berreskuratuz eta, gure kasuan, baita gure ikaskideak ere.

LIBE: Gure kuadrillako biodibertsitatea bultzatuz.

SIMON: Eta fauna sustatuz.

SUSANA: Niri ez abere deitu . Barre egiten dute.

BEÑAT: abestuko dugu rapa?

GUZTIAK: Baiiiii! Raparen musika oinarria entzuten da eta abestu egiten dute. Azken eszena honetan, dantza ere egiten dute eta guztiek parte hartzen dute.

SUSANA Y LIBE: Bir Bir Birnaturalizatu

SUSANA: osasuna ez hondatu

LIBE: gehiago ez kutsatu

SUSANA: berriro ez ehizatu

LIBE: birnaturalizatu (bis)

SUSANA: Ibaiaren bideak
zainduko ditugu

LIBE: Sasiak garbitu
Birnaturalizatu (bis)

SUSANA: animaliak
Landareak

LIBE: mikroorganismoak
aukerak amestu (bis)

SUSANA: Zer egingo dugu ba?

DENAK: inor atzean ez utzi

SUSANA: Zer egingo dugu ba?

DENAK: hil arte bizi

MARTA: lore arraroak
zomorro arrotzak

LAIA: krisalidak gara
Amesten duten
tximeletak (bis)

BEÑAT y SIMON: Anitzak gara
ume mutanteak
xelebreak gara
Bizikidetzan (bis)

SUSANA: Zer egingo dugu ba?


DENAK: inor atzean ez utzi

SUSANA: Zer egingo dugu ba?

DENAK: hil arte bizi
Bir Bir Birnaturalizatu (bis)



AMAIERA



BIR ————— BIR
BIRNATURALIZATU

baketik

